

HARPIDETU ZAI TEZ HITZA_n

Irudiak Harpidetza Izan Sustatzaile Txokoa HITZA TB Zerbitzuak Zorion-Agurak

• IRUTXULO KO •

HITZA

ALBISTEAK AUZOAK ASTEKARIA MULTIMEDIA IRITZIA AGENDA JAIK

Nork: [Nerea Lizarralde](#) -maiatza 30, 2016

ONTZI MUSEOAK 25 URTE BETE DITU

Donostiako [Ontzi Museoa](#) 1991ko maiatzaren 23an ireki zen publikoarentzat, euskal itsas ondarea eta historia zaintzeko, aztertzeko eta hedatzeko helburuarekin. Jendeari zabaldu zitzaionez geroztik, zentroaren kudeaketa lana Airu Z.K. kultur zerbitzuetarako enpresak darama, eta geroztik, Soco Romano eta Jose Maria Unsain izan dira museoko zuzendarikideak.

Urtemuga ospatzeko egitarau berezia prestatu dute, eta hurrengo asteetan jardueraz beteko dute Ontzi Museoa.

Maiatzak 31, eta ekainak 1 eta 2, asteartea-osteguna

Iñigo Salaberriak DSS2016EUko Labore programarako ekoiztu duen Kaia/El Muelle dokumentalaren proiektzioa. Donostiako kaiko arrantzako profesionalen eta bizilagunen ahozko testigantzak eskaintzen dituen dokumentala. Ordua: 17:30ean.

Ekainak 1, asteazkena

Orixe ikastolako ikasleentzako Apaxi ipuin kontalariaren saioa. Orixe Ikastolak hogeita bost urte hauetan Ontzi Museoarekin harreman eta elkarkidetzat estua izan du.

Ekainak 4, larunbata

Pasaiako bateleren dantzak: Museoaren kanpoaldean emanaldia. Ordua: 13:00etan.



Ontzi Museoaren urtemugaren harira egingo dituzten ekitaldiak iragartzeko prentsaurrekua eman dute gaur.

Ekainak 14, asteartea

Donostiako Musika eta Dantza Eskolako Atotxako flautisten kontzertua.

Ekainak 15 - irailak 30

Sirenak eta itsasgizon zailduak udako tailer pedagogikoa. Tailer honetan mitoen eta lanbideen bitartez itsas munduan emakumeei eta gizonei tradizionalki eman zaizkien paper ezberdinak aztertuko dira. Astialdi eta aisialdi taldeentzako zuzendua (udaleku irekiak, hizkuntza akademiak, eta abar).

Ekainak 17, ostirala

Itsasoko jendea atal berriaren publikazioa webgunean, Museoak bultzaturiko ikerketak oinarri hartuta. Euskal itsasgizonen eta itsas munduko emakumeen paperaren inguruko sail ezberdinak izango ditu.

Ekainak 21, asteartea

Ondarea, museoak eta generoa. Generoaren eta museoen inguruko tailerra. Euskal Herriko Unesco Katedrako Maider Marañaren eta Euskal Herriko Unibertsitateko Haizea Barcenillaren parte hartzearekin.

Ekainak 30, osteguna

Itsas Memoria, Euskal Herriko Itsas gaiei buruzko aldizkariaren 8. zenbakiaren edizio digitala. Bilduko dituen 36 ikerlanetan hainbat gai jorratuko dira: itsas historia, antropologia, ahozko testigantzen jasoketa, etabar.



Mattin marrazkilariak Ontzi Museoaren 25.urtemugaren harira egindako ilustrazioa.



NEREA LIZARRALDE

Ez dago iruzkinik

EGIN IRUZKIN BAT



CAPTCHA Code*